



170

ALEA

arabako aldizkaria

SATURNINO RUIZ DE LOIZAGA

"GAUBEAKO TOPONIMIAN EZ DAGO EUSKARAREN AZTARNARIK: INPOSATU DUTE"



Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



55€
urtean



www.alea.eus/harpidetzak



ALEA 170

2018-11-02 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

JUANMA GALLEGO

Saturnino Ruiz de Loizaga.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Zuzenak klubeko gorpildun aulkiko errugbi taldea.
- 8 **Protagonista:** Saturnino Ruiz de Loizaga, paleografoa eta ikertzailea.
- 12 **Iritzia:** Oihan Txabarri.
- 14 **Sarean:** #Bolsonaro.
- 15 **Iruditan:** Euskal ezkontza Legution.
- 16 **Gizarte:** Wikimedia Elkarteko kideak Gasteizen bildu dira, ezagutza librearen zabalkundearen aurrerapausuak emateko.
- 18 **Gizarte:** Udazkenarekin batera, gaztainak erretzeko eta ezitia egiteko garaia iritsi da: hala egin dute Apinaizen eta Fresnedan.
- 20 **Esanak.**
- 21 **Laburrak.**
- 22 **Kultura:** Errigora elkarteko kide Ilune Basterrari elkarriketa.
- 24 **Kultura:** Artepanek 35 urte bete dituela eta, ogi tostekin egiteko errezetak biltzen dituen liburua prestatu du.
- 26 **Zinema:** 'Cold War', Zigor Etxebeste.
- 27 **Sexualitatea:** Emaize Sexologia Zentroa.
- 28 **Gure Bazterrak:** Andoin.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena“

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri eta Zigor Etxebeste.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailaren edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Quad Rugbyan, baloiarekin hesiak apurtzen

Zuzenak klubeko gorpildun aukiko errugbi taldea –Quad Rugby taldea– urtarrilean hasi zen Gasteizen entrenatzen, eta oso azkar hazten ari da egitasmoa. Pasa den apirilean aurkeztu zuten proiektu berria, eta bi aste beranduago Espainiako Txapelketan parte hartu zuten.

Testua eta argazkiak: **Oier Bravo.**



Gasteizko Zuzenak klubean beti daude erronka berrien bila, eta, joan den urtean, saskibaloira jokatu ezin dutenei zuzendutako egitasmo berri batean hasi zen kluba lanean. Asier Dominguez, Alexis Pool Romero eta Tony Sanchez jokalariek abiatu zuten proiektu hori; kontzentrazio batean zeudela hasi zen jendea animatzen. "Saskibaloit taldeko jende gaztea atzetik estutzen hasi zen; Tony Sanchezek eta biok 20 urte inguru generamatzen horretan; lekua galdu genuen, eta nire kasuan entrenatzaile lanetan hasia nintzen", aipatu du Dominguezek. "Egun batean, broma moduan errugbian hasi behar ginela komentatu genuen, eta konturatu orduko Espainiako Selekzioaren kontzentrazio batean geunden ikasten".

Jokoa zertan datzan azaldu dute. Saskirik gabeko saskibaloit kantxa batean jokatzen da *Quad Rugby*, boleibol baloi batekin. Lau jokalarit zelairatzen dira talde bakoitzeko, eta golak lortzea da helburua: baloia kontrolpean izanda pasa behar da fondoko marra, errugbian entseguak diren bezala, baina bi konoren artean pasatuta.

Jarduera honetan kolpeak baimenduta daude; are gehiago, beharrezkoak dira jokoa ulertu ahal izateko, izan ere, abantailak lortzeko elementurik garrantzitsuenak dira gurgildun aulkien arteko talkak. Horretarako, bi aulki mota daude: erasoia jotzeko

Tony Sanchez Herman, Markel Kerexeta Zabala, Asier Dominguez Gamiz, June Marcos Martinez de Ilarduya, Alfonso Lopez Raez, Alvar Alonso Alvarez, Alexis Pool Romero Santos eta Andoni Senosiain Gabaldonek osatzen dute taldea.

KONTAKTU FISIKOA DEBEKATUTA DAGO; TAKTIKAK FISIKOAK BAINO GARRANTZIA HANDIAGOA DAUKA

JOKALARI GEHIENEK DUTE ZERBAIT KOMUNEAN: GURPILDUN AULKIDUN SASKIBALOITIK DATOZ

balio dutenak, batetik; eta defendatzeko erabiltzen direnak, bestetik.

Kontaktu fisikoa, aldiz, guztiz debekatuta dago. Hala ere, taktikak fisikoak baino garrantzia askoz handiagoa dauka gurpildun aulkiko errugbian. 40 segundo dauzka jokalariek jabetza moduan, eta denbora tarte horretan egin behar du gola.

Hasierako zailtasunak

Proiektuaren hastapenei dagokionez, jakinarazi dute hasiera nahiko zaila izan zela taldea osatzen zuten guztientzat. Kirol ezezaguna izateak zailtasun asko ekarri dizkie taldearen arduradunei, informazio eskasa dagoelako Quad Rugbyaren inguruan. Baina antolatzen diren hainbat topaketek lan hori errazten dutela onartu dute. "Espainiako Kirol Egokituen Federazioak antolatutako kontzentrazio batean egon nintzenetik, kirola ezberdin ikusten dut. Asko ikasi nuen bertan", onartu du Ainhoa Rodriguez entrenatzaileak. "Han esperientziadun jendearekin entrenatzen duzu, eta gainera nahi duzun material guztia daukazu eskura entrenamendu mota ezberdinak egiteko. Hemen ez dauzkagu horrenbeste baliabide. Pausoz pauso gabiltza aurrera egiten", nabarmendu du.

Iaz oso taldekide gutxi egon ziren entrenatzen, baina aurten bederatzik jokalaria dituzte taldean. Klub barruan fitxaketak egin badituzte ere, kanpotik ere etorri da jendea; tartean, Burgosetik. Hangoa da, hain justu ere, Alvar Alonso. Pasa den denboraldira arte saskibaloian bakarrik aritzen zen, Burgosen, eta aurten hasi da Zuzenakeko errugbi taldearekin entrenatzen: "Nire desgaitasuna dela eta, kirolez aldatzea gomendatu zidatenean Gasteizen errugbia egiten zutela jakin nuen, eta hona etortzea erabaki nuen. Astean birritan nator Burgosetik, baina oso gustura nago hemen".

Talde anitza

Taldea oso anitza da, zentzu guztietan, kirol egokitu guztietan diren moduan, alegia: neska zein mutil, handi zein txiki, sendo zein ahul... Guztiek hartzen dute parte taldean, bakoitzak bere ahalmenaren arabera, *Zuzenak Basatiak* izenpean.

Baina jokalaria gehienek dute zerbaitekin komunean: gurpildun aulkidun saskibaloitik datoz. Horren harira, zera dio June Marcosek: "Saskibaloia azkarregia zen niretzat, eta gainera indar gehiago behar nuen horretan ibiltzeko". Kasu berezia da talde barruan: neska bakarra izateaz gain, ez du tetraplegiarik. "Oso azkar nekutzen naiz, eta gainera oso potentzia gutxi daukat, nire gaixotasunetik eratorria", azaldu du. Marcosek gaitz neurologiko arraro bat dauka, eta bere desgaitasuna puntuatzerakoan arazoak izan dituzte: "Medikuek ere ez dakite zer daukadan; nola puntuatuko didate, bada? Mugimendu artikulatuak bakarrik puntuatzen dituzte, eta ez nekea eta erreflexuak, nire arazorik larrienak".

Jokalaria guztiek daukate desgaitasun puntuazio hori: gero eta desgaitasun handiagoa orduan eta puntuazio txikiagoa izango dute. Zelaian jokatzen dauden 4 jokalariek bakarrik 8 puntu batu ditzakete guztien artean. Horrek entrenatzaileari buruhauste



Zuzenak gurpildun aulkiko errugbi taldeko kideak, entrenatzen.

handiak sortzen dizkio: "Matematikak egiten egon behar zara. Puntuazio altuko bi jokalarik puntuazio txikiko beste birekin konbinatzea da normalena. Puntuazio altuena daukanak baloia eramaten du, eta besteek, gola lortzen lagundu behar diote", azaldu du Ainhoa Rodriguezek.

Emitza bikainak

Oztopoak oztopo, emaitza onak lortu dituzte orain arte jokaturako bi txapelketetan. Espainiako txapelketa izan zen lehena, apirilean. Esperientziadun beste hiru talderen aurka jokatu zuten emaitza bikainarekin, txapeldunei irabazteko zorian egon baitziren gaur egun Ainhoa Rodriguezek gidatzen dituen jokalariek, baina garai hartan Lander Lozanoren agindupean zeudenak. Bigarrenean, aldiz, taldearen lehen garaipena lortu zuten Kataluniako selekzioaren aurka (38-27). Gainera, Espainiako txapeldunak diren CAI zaragozarrei irabazteko zorian egon ziren berriro (42-41) eta bigarren postuan sailkatu ziren Joko Katalanetako txapelketa honetan.

Emitza hauek Zuzenaken egiten ari diren lanaren isla da, noski, baina kompetentzia ez da momentuz taldearen xede nagusia; helburua hasierako berdina izaten jarraitzen du Ainhoa Rodriguez entrenatzailearen esanetan: "Betiere formazioa da helburu nagusia, eta kirola ezagutzera ematea". ■■■

"Vatikanoko artxiboa ez da hain sekretua, izenak hori badio ere"

SATURNINO RUIZ DE LOIZAGA PALEOGRAFOA ETA IKERTZAILEA

Erroman 40 urte baino gehiago daramatza ikertzaileak, baina jaioterriko interesa bizirik mantendu du, eta Gaubeari buruzko ikerketa ugari kaleratu ditu. Oso kritikoa azaldu da egungo hizkuntz-politikarekin, eta gaztelarazko toponimoak mantentzearen alde azaldu da. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.

kasturte osoa Erroman eman ohi du Saturnino Ruiz de Loizaga (Tuesta, 1939) ikertzaileak, baina uda etxera itzultzeko baliatzen du, bereziki Gaubeako historia eta kultura ikertzeko. Valpuestako kartularioa ikertzen ari zela, latinaren artean gaztelaraz idatzitako lehen hitzak aurkitu zituen, baina oraindik ere historia liburuetan gaztelararen jaiotzaren abiapuntua Donemiliaga Kukulako monasterioan (Errioxa) izan zelako teoria nagusi da. Egoera horregatik kezu azaldu da Ruiz de Loizaga.

Aspalditik ez dira ezagutu Valpuestako kartularioari buruzko datu berriak. Zergatik?

Gaztelera Gaubeako inguru honetan jaio zela argi dago, baina burgostarrak oso gutxi lan egiten ari dira gai horretan. Errioxarrekin aurrea hartu diete: erkidego horretako gobernuak diru andana xahutzen du gaztelera Errioxan jaio zelako teoria sustatzeko. Tira, Antonio Machadok zioen moduan, gaur egungo Gaztela txirotuta eta lokartuta dago. Hasiera batean bazirudien Valpuestaren aldeko ideiek aurrera egingo zutela, baina hainbat liskar izan dira herrian bertan gaia landu dutenen artean. Funtsezkoa da ikertzaile berriak gai horretan sartzea, baina orain kontua

guztiz utzita dago. Ni naiz hori mugitzen ari den bakarra, baina nekatuta nago jada.

Valpuesta Burgosen badago ere, gertutasun handia du Gaubearekin, ezta?

Historikoki eta kulturalki, Valpuesta Gaubeako zati bat da, eta Gaubea, Gaztelaren parte. Diozesien banaketa egin zenean, Valpuestakoak lauzpabost herri hartu zituen, gaur egun Burgosen parte direnak. San Zadornil bereziki garrantzitsua zen garai horretan, batez ere bertako mendietan zegoen egurra zela eta. Lehen diozesi hori ia 300 urtez egon zen Burgosi lotuta.

Zerk eraman zintuen kartulario horiek ikertzera?

Nik paleografia ikasketak egin nituen Vatikanon. Teologia ikasi nuen ere, baina historia ezin izan nuen ikasi ez zidatelako utzi. Latina ezagutzeak aukera eman zidan historiari buruzko gaietan sartzeko. Horregatik transkribatu nuen Valpuestako kartularioaren zati bat. Niretzat, historia lantzea birus baten modukoa izan da beti.

Nola izan zen lehen hitz horiei gaztelararen usaina antzemateko unea?

Oso une polita izan zen. Transkribatzen ari nintzela, konturatu nintzen aurrean nituela latinetik gaztelarazko bilakaeran agertutako lehen



Udako oporrak baliatzen ditu Ruiz de Loizagak Gaubeara itzultzeko eta eskualdeari buruzko ikerketak burutzeko.

hitzak. Esaldi txikiak ziren, bizpahiru hitz elkarrekin. Baina lan asko dago oraindik egiteke kartulario hori eta beste hainbat agiri oinarri hartuta. Kartularioetan, jendeak monasterioei egiten zizkien dohaintzak agertzen dira, eta bertan aipatzen dira garai horretan zeuden lurraldeak, landareak, elizak, basoak, txoriak... gauza askori buruz hitz egiten da bertan; baina, latina ez badakizu, ez dago zer egiterik. Orain gehienetan nahasketa edo *errefritoak* baino ez dira idazten. Ikerketak ahalegin handia eskatzen du, eta aisialdiari ordu asko lapurtu behar zaizkio. Baina oso polita da. Garaiko jendearen bizitza oso latza zen, eta dohaintza horien bitartez salbazioa eskuratu nahi zuten. Lurrera baino, zerura begiratzen zuten. Kartularioetan dohaintza horiek idatzita jasotzen ziren, garai horretako mentalitateari jarraiki, bekatuen barkamenerako eta infernura ez joateko. Dohaintza horiei esker monasterioek lur asko eskuratu zituzten.

Nola oroitzen dituzu Vatikanon emandako lehen urteak?

Vatikanoko Paleografia Eskolan ikasi nuen, baina, horretarako, latina jakin behar zen, noski. Azterketak egiten zizkiguten, eta dokumentu bat eman

ziguten. Dokumentu horretatik laburpen antzeko bat egin behar genuen, gure hitzetan. Sergio Pagano genuen irakasle; orain Vatikanoko Artxibo Sekretuko zuzendaria da Pagano. Azterketetan beti *Non Sufficit*, jartzen zidan, nik egindako laburpena ez zela nahikoa adierazteko. Gauza bat da latina ulertzea, baina oso bestelakoa da zuzenean latinez idaztea, are gehiago horretarako eskarmenturik ez duzunean.

Eta zertan datza orain Vatikanon egiten duzun lana?

XIII. eta XIV. mendeetako egile frantziskotarren edizio kritikoetan lanean ari naiz. Orain XII. mendean bizi izan zen Juan Duns Escoto teologo frantziskotarraren lan osoaren edizio kritikoa jorratzen ari gara. Gure ekarpenari esker, beato izendatu dute. Edizio kritiko horiek beharrezkoak dira testuak ondo jasotzeko. Garaiko idazle asko laguntzaileak zituzten, edo alboan ikasleak zituzten, apunteak hartzen. Hainbat lanetan, gainera, jatorrizko eskuizkriburik ez dago, eta ikasleek idatzitakoak fidatu beharra dago. Horregatik, batzuetan diskurtso bakar baten bertsiodesberdinak daude, eta horiek osatzea eta testuinguruan jartzea da gure lana. Askotan hitzak errepikatzen dira, testu zatiak falta dira... guk,



Orain Erroman badago ere, etxera itzuli nahi du apaizak.

"VALPUESTAREN GAIAN, IKERTZAILE BERRIAK SARTZEA BEHARREZKOA DA, NI NEKATUTA NAGO JADA"

"VATIKANOKO BANKUAREN KONTROLA DAGO ORAIN. LEHEN, ASKOTARIKO JENDEA JOATEN ZEN"

"EUSKAL NAZIONALISMOAREN FREKUENTZIA KULTURALEAN EZ BAZAUDE, EZ DUZU EZER EGITERIK"

finean, detektibe baten lanaren parekoa egiten dugu. Lantaldean aritzen gara, eta italiera da gure lan hizkuntza. Ordu-tegi gogorra dugu, eta gero eta gutxiago gara –horman eskegitako irudi bati begira–. Argazki horretan nirekin batera agertzen diren gehienak hil dira. Berez, *Antonianum* Unibertsitateko sail bat da gurea. Nik laster utziko dut lan hori, eta hona itzuliko naiz. 80 urte betetzear nago, eta ez dut itzuli nahi ikertzeko zahaerria izango naizen garai batean. Egunotan Arantzazun egon naiz, eta egongo diren 25 fraideetatik 7-8 gurgildun aulkian daude jada.

Nolakoa da gaur egungo egoera Vatikanon?

Frantzisko aita santuak aire berria ekarri du Vatikanora. Ratzinger [Benedikto XVI.a] zientifikoagoa edo teologikoagoa zen, baina aita santu hau eskurago dago. Gauzak egiteko modu berria asmatu du, eta, Ratzingerrek ez bezala, guztiok ulertzen duten hizkuntza darabil. Igandero San Pedro plazan egiten dituen predikuetan igartzen da hori, oso erraz ulertzen diren mezuak zabal-tzen dituelako. Oso gertukoa da, gainera. *Buon pranzo* ["janari ederra honakoa"] bezalako esamoldeak erabiltzen ditu. Orain arte bazirudien aita santu batek ezin zuela horrelakorik esan.

Kanpotik ikusita, Frantziskok etxe barruan arerio asko dituela ematen du...

Bai, aurkari batzuk baditu: tradizionalak. Baina nik uste dut oso ondo etorri den aita santua dela. Adibidez, finantzen alorrean, IOR Vatikanoko Bankuaren gaineko kontrola oso zorrotza da orain. Gaietik ezagutzen dut gaia, hemengo probintziako kontu batzuk eramaten nituelako; lehen, banku horretara askotariko jendea joaten zen. Baina askoz gehiago ezin dizut esan, ni mundu horretan sartuta ez nagoelako. Esan bezala, oso une egokian iritsi den aita santua izan da; gero eta gehiago, mundua elizatik aldentzen ari delako. Dena dela, ez pentsa, ni baino hiru urte gehiago dauzka, ikusteko dago ea honek ere dimisioa ez ote duen emango.

Vatikanoko artxibo sekretua gertutik ezagutzen duzu. Gauza asko al daude bertatik erauzteko?

Izen horrekin ezagutzen da, baina bertan ez dago jadanik sekretua den ia ezer. Aita santuarena zelako deitzen zioten horrela, baina, tira, sukaldariari ere "sukaldari sekretua" deitzen zioten. 1939. urtera arteko agiri guztiak ikusi ahal dituzu. Arazoa da horiek ulertzeko gai izatea, latinez daudelako; informazio horretan guztian latza da gauzak aurkitzea. Informazioaren %10 inguru baino ez da egongo katalogatuta agian. Zati

batzuk digitalizatuta daude, baina benetan zinez handia da artxibo hori.

Lehen aipatu duzu 'Antonianum' Unibertsitatean zaudela. Zertan bereizten da erakunde hori?

Gure unibertsitatean bereziki Zuzenbide Kanonikoa, Teologia eta Filosofia irakasten ditugu. Beste unibertsitate batzuk badaude Erroman, eta gurea da agian txikiena, ikasle kopuruari dagokionez, bederen. Elizarena den Unibertsitate *Gregorianoa* dago; *Lateranense* Unibertsitatea, jesuitena, eta dominikoek ere badute beraiena. Unibertsitate gehiegi daude agian, are gehiago, gero eta klero gutxiago dagoen garai hauetan. Horregatik, batzuk batu beharko dira, halabeharrez.

Aurrera begira, zer proiektu dituzu?

Erroman, Escotoren lanen edizioan jarraitzen dut. Hemen, Gesaltzari buruzko lan bat bukatu berri dut. Izugarria da hain txikia den herri bati buruz dagoen informazioa: 902. urtetik 1600. urtera arte, 300 dokumentu inguru daude. Bestetik, 1348. urteko izurrite larriak gurean izan zuen eraginari buruzko dokumentu berriak aurkitu ditut orain. Aurretik liburu bat idatzita daukat horri buruz, eta lan hori osatu nahiko nuke. 100 ale baino ez ditut aterako, bestela diru galera handia da eta. Egia esanda, liburu andana idatzi eta argitaratu ditut,

baina jendeak ez du asko irakurtzen. Horietaiko asko gordeta ditut. Tira, dagoeneko ez dakit zer egin horrenbeste libururekin. Amazonera deitze-kotan nago eta dena har dezaten, behinik behin leku gehiago izan ahal izateko [barrez].

Askotan esan duzu Gaubean euskal toponimia "inposatu" izan dela. Zergatik?

Hemen, jatorrizko toponimian ez dago euskararen arrastotik. Orain jarraitzen ari den bideak suposatzen du historiaren kontra joatea, eta inork ez du aitortu nahi kontu hau. Horregatik, ospe txarra daukat nik, baina ez zait axola. Arabak berezko istorioa du, baina guztiak gipuzkoar bilakatu nahi gaituzte, eta euskal nazionalismoaren frekuentzia kulturallean ez bazaude sartuta, ez duzu zer egiterik. Euskara inposatzen ari zarete hemen. Adibidez, *Salinas* herriak [Gatzaga] ez du euskal toponimorik, baina Gatzaga inposatu da. Honek ez du ez hanka ez bururik, Goierrin "campo azul" edo antzeko toponimoren bat sartzearen parekoa litzateke hau. Toponimo historikoak errespetatu behar dira. Ameriketako Estatu Batuetan, adibidez, Los Angeles edo San Frantzisko lasai asko mantentzen dute, hori baita haien jatorria. Errioxan eta Burgosen ere, euskal jatorria duten toponimoak mantendu dituzte. ■

Eliza Katolikoaren boterearen erdigunea ezagutzen duen arabarra

Pablo VI.a., Juan Pablo II.a, Benedikto XVI.a, Frantzisko... azken urteetan Vatikanon izan diren aita santu gehienak ezagutu ditu Ruiz de Loizagak, eta gertutik ezagutu ditu ere Elizaren bideak zehazteko agintari bakoitzak erabilitako estiloak. Jorge Mario Bergogliok "aire berria" ekarri duela dio, eta, batez ere, Vatikanoko Bankuan jarritako ordena azpimarratu du. Aurretik ez omen zegoen hainbesteko kontrolik. Halere, bereziki kulturaren alorretan aritzen den ikertzailea izanik, batez ere Vatikanoko artxiboa ezagutzen du hoberen.



Vatikanon 40 urte emanda, apaizak aita santu ugari ezagutu ditu. RUIZ DE LOIZAGA

Bene-benetan, herrena berbetan



OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA

Nabarituko zenuten, baina badaezpada, hona egutegi-abisua: beroketaren azken txanpan sartu gara, hiru aste barru hasiko da Euskaraldia. Eta nabarituko zenutela diot, jada areagotu delako promozio-argazki eta atxikimendu ekitaldien desfilea. Guztiek nahi dute argazkiaren zatitxo bat, eta hori ere bada euskalgintzaren garaipenetako bat. Ez inportanteena, inondik inora, baina hainbeste urtetako lan eskergak baditu zeharkako onura batzuk, agerikoenetarikoa horixe, euskara *cool* dela, euskararen alde agertzea *progre*a dela. Aspertzen bazarete, zoazte Euskaraldiaren webgunearen "Sustatzaileak" atalera eta ikusi, zein zabala eta anitza den erakunde publiko eta pribatuen zerrenda. Euskararen normalizaziorako espreski jaiok batzuk; euskarari diru, denbora eta ahalegin dexente eskainitako beste batzuk badira, eta erdaraz nagusiki edo %99an jarduten direnak ere egon badaude.

Kasu, ez naiz kritikatzeko ari. Esku artean daukagun esperimentu honek emango dituenak aprobetxatu beharreko bibrazioak dira, eta ez da momentua hatz erakuslea paseatzera ateratzeko. Besteak beste, ispilua ere seinalatzen bukatuko genukeelako. Beraz, ongi etorriak ahobizi eta belarripresten batzar ibiltarira guzti-guztiak, militanteenetik interesatuenera. Goazen geure buruei erronka egitera, ohiturak aldatzen saiatzera, gure hizkuntza ikusaraztera eta euskaldun pasiboak armairutik ateratzera. Baina aste eta erdi honek ezin du balio normalizazioaren erantzunkizunaren zama nagusia erakundeei kendu eta gizabanakoengan jartzeko.

Barka nazala Joxan Artze zenak, baina normalean *hizkuntza bat ez da galtzen dakitenek erabili nahi ez dutelako, beste batzuek debekatu, zapaldu eta oztopatu dutelako baizik*. Euskalduna herrena da hanka moztu ziotelako. Ibili daiteke, eta ibiliko da. Korrika egin dezake, eta egingo du. Baina makulua eskatzeko eskubide osoa du, eta makuluaren ostean gurpil-aulkia, zapata bereziak eta beharrezkoa duen guztia. Hamaika egunez ibiliko gara, bai. Gustura ibili ere. Eta gero, ortopedia kontuak. ■

**GOAZEN GEURE BURUEI
ERRONKA EGITERA,
OHITURAK ALDATZEN
SAIATZERA, HIZKUNTZA
IKUSARAZTERA**



Zerriaren kontrola estrategikoa
EZ UTZI ENDREDATZEN
NO TE DEJES ENREDAR
 Estrategia Antimundurri

BIZILAGUNAK

AZAROAK 11 ARABA

44 herrialdeko mila lagun baino gehiago,
 93 etxe eta txokotan elkarrekin bazkaltzen



CEAR-Euskadi: ☎ 945 266 805 ✉ bizilagunak.araba@cear-euskadi.org 📄 bizilagunak.araba 📱 @bizilagunAraba

Bidali iezaguzu WhatsApp-a!



688 812 944

Antolatzaileak eta sustatzaileak:



*Araba da erronka.
 El reto es Álava*



Babesleak eta laguntzaileak:



Begi kolpean

SAREAN

@MIRIAN BITERI

#Bolsonaro

Jair Bolsonaro ultraeskuindarrak irabazi ditu igandean egindako Brasilgo Presidentetzarako hauteskundeak. PSL Alderdi Sozial Liberalaren hautagaiak botoen %55,21 lortu ditu; eta Fernando Haddad ezkertiarak, Langileen Alderdiko hautagaiak (PT), botoen % 44,79. Militar ohia da Jair Bolsonaro, eta Brasilgo azken diktadura goratu izan du. Emaitzak ezagutu bezain pronto hasi dira horren gaineko lehen adierazpenak zabaltzen. ■



OIER AZKARRAGA
@betihesean

Brasilek, beste behin, gauza argi bat erakusten digu: Faxismoari aurre egin ezean, eta ez naz ari hauteskundeetaz, etorkizun beltza dugu. Borrokarako garaia da. #ForçaBrasil



IMANOL MAGRO
@Imagreto

Hedabideok erraz erabiltzen ditugu 'eskuindar' edo 'muturreko eskuindar' bezalako adjektiboak atzerriko politikari edo alderdei buruz hitz egitean. Ingurukoei, aldiz, ez diegu etiketarik jartzen, edo ez gara ausartzen.



ANE IRAZABAL
@Anelrazabal

Salvinik ospatu egin du #Bolsonaro-ren garaipena. Olatu ultra mundu osoan zabaltzen ari da.



KAKAPO
@kakapo

Etsigarria, benetan.



TXERREN
@txerren

Eskerrak Europa hobeto dabilenohwait...

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus



1881. urtera itzuli da Legutio

Ehunka lagunek parte hartu zuten larunbatean, Urria Kulturala egitarauaren harira, Legution antolatutako euskal ezkontzan. XIX. mendera egin zuen herriak atzera, eta garai hartako arropak jantzita, ezkongaiak elizaraino lagundu zituzten bertakoek zein inguruko herrietatik heldutakoek; elizkizuna eta Legutioko eta Otxandioko dantzarien emanaldien ondotik, pilotalekurantz abiatu ziren guztiak. 1881. urtean egindako arriotea irakurtzeari ekin zioten orduan notarioek. Herri afariarekin eta, jarraian, Jainaga eta Narbaizak eskainitako erromeriarekin jarraitu zuten ospakizunek.

Argazkia: Andoni Sola. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



60 bat lagunek parte hartu dute Goiuri jauregian egindako jardunaldietan. WIKIMEDIA

Ezagutza askea zabaltzeko sarea

Espainiako Wikimedia Elkarteko kideak Gasteizen bildu dira asteburuan, ezagutza librea sustatu nahi duen mugimenduaren nondik norakoak zehaztu eta erronka berrien inguruan hausnartzeko.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Kablez eta sarez beteta egon da asteburuan Gasteizko Goiuri jauregia. Kableak bai, baina sareak ez dira ikusten; ez WIFI sareak ezta pertsonen artean osatzen diren sareak ere. Berdin dio; tresna horien guztien bitartez hedatu daiteke informazioa. Zabalpen hutsa ez da nahikoa, baina. Ezagutza horrek lagun oren esku

egon behar du. Horren alde lanean ari dira WMES Espainiako Wikimedia Elkarteko kideak. 2011n sortu zuten elkartea modu ofizialean, baina aurretik lau urte inguru zeramatzatzen lanean Wikipedia proiektuaren inguruan bildutako boluntarioak. Egun, ehun bat kide dira elkartean.

Aurtengo bilkura Gasteizen egin dute, SPRI elkarteko Enpresa Di-

gitaleko kide Aitor San Sebastiani esker. Hark proposatu zuen Gasteiz hartzea jardunaldiak egiteko lekutzat, WMES elkarteko kide Mentxu Ramilo Araujoren arabera. Saregune eta gasteizko Santa Maria Katedrala Fundazioaren laguntza izan dutela ere azpimarratu du Ramilo Araujok.

Orotara, 60 bat lagun bildu dira asteburuan. Horietatik, 20 bat Euskal Herrikoak dira, eta gainerakoak Espainiatik etorri dira.

Ramilo Araujo 2015. urtetik da WMES elkarteko kide, eta jardunaldi hauen prestaketan burubelarri ibili da. Wikimedia fundazioaren helburu nagusia ezagutza "pertsona ororen esku" jartzea dela azaldu du. Adituaren esanetan, norabide horretan "oraindik asko dago egiteko". Wikipediako sarrerak osatzeaz gain, "askotariko begiraden beharra" azpimarratu du adituak. "Wikipedia editatzen ohi duten pertso-

nak klase ertaineko gizonetzkoak dira, Mendebaldean bizi direnak eta goi mailako ikasketak dituztenak". Hori dela eta, begirada zabaldu beharra dagoela uste du Ramilo Araujok, "historia, edo historiak, askotariko ikuspuntuetatik kontatua izan dadin".

Tresnak zabaldu

Norabide horretan, hiru erronka nagusi zehaztu ditu *wikilariak*. Lehenik eta behin, entziklopedia askean dagoena berrikustea eta gaurkotzea. "Wikipedian dagoena ez da perfektua, beti dago osatzeko eta hobetzeko aukera". Iturri fidagarriak erabiltzearen garrantzia azpimarratu du.

Bigarrenik, tresna hori ikasketa eta "eraikuntza kolektiboko espaziotzat" hartu behar dela iritzi dio Wikipediako boluntarioak. Gogoratu du ez dela guztiz zuzena esatea zerbait entziklopedia librean irakurri dela, baizik eta Wikipediako artikuluko batek aipatutako erreferentzia batean.

Hirugarrenik, Wikipedian kolaboratzera hurbiltzen diren lagunei

WIKIPEDIA BATEZ ERE GIZONEZKOEK IDAZTEN DUTE ORAIN, BAINA EGOERA HORRI BUELTA EMAN NAHI DIOTE

gertutasun gehiagorekin artatzeko erronka aipatu du. "Ezagutza gutzia bildu nahi badugu, editoreen profilen aniztasuna handitu behar dugu". Azken erronka honi lotuta, 2015eko azarotik Euskal Herrian Wikiemakumeok egitasmoa garatzen ari direla gogoratu du Ramilo Araujok. "Honi esker, Wikipedia eta Wikimedia proiektuetan dagoen genero arraila txikitzen laguntzen ari gara".

Jardunaldietan hainbat osoko bilkura egin dituzte, eta, bertan, egun ezagutza librearen aldeko mugimenduak dituen erronek buruz hausnartu dute. Wikipediaren barne funtzionamenduari buruz eztabaidatu dute, eta baita ezagutza librea lortzeko dauden zailtasunen inguruan ere,

hezuntza, hizkuntza eta generoa bezalako aldagaiak aintzat hartuta. Administrazio publikoek eskaintzen dituzten datu irekiei buruz eta Wikimedia mugimenduak horietan egin ditzakeen ekarpenei buruz ere hitz egin dute.

Hezkuntzaren alorrean Wikipediaren erabilera jorratu dute, eta, ezagutza handitu aldera, informazio fidagarriak eskaintzen dituzten iturriekin osatu daitezkeen aliantzak mahai gainean jarri dituzte, hala nola hedabideak edo komunitate zientifikoa.

Argazkilaritza libreari lotutako egitasmoak, *copyright*-ari buruzko legediaren erreforma, eta Euskal Herrian izan diren ezagutza libreko esperientziak izan dira jardunaldietan jorratu diren beste gaietako batzuk.

Praktikari begira

Teoria ez ezik, arlo praktikoa ere landu dute, hainbat tailerretan: entziklopedia askea editatzeko lehen pausuak, *Wikidata*-ren erabilera, *bot*-en erabilera, argazkilaritza eta software librea.

Jardunaldiei amaiera emateko, igandean *Wiki-take* bat egin dute, Gasteizko Santa Maria katedralean: eraikin zaharrean ibili dira *wikilariak* gora eta behera, argazkiak ateratzen, *Wiki loves monuments* egitasmoaren baitan. Irudi horiek *Commons* lizentzia pean askatuko dituzte gero, nahi duen pertsona orok argazkiak erabiltzeko aukera izan dezan.

Pozik azaldu da Ramilo Araujo asteburuan bizi izandakoarekin, baina aitortu du *wikilari* ez den jende gutxi hurbildu dela Goiurira. "Artean pedagogia asko egiteko dago, jendeak ikus dezan ezagutzaren zabalpenean laguntzeko modua badutela, eta, horrez gain, euren ezagutza propioa handitzeko aukera ere badutela".



Igandean, 'Wiki-take' bat egin dute Gasteizko Santa Maria katedralean. WIKIMEDIA

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Zizak, gaztainak, aranak, eztia, intxaurreak, urrak... Asko dira Arabako naturak udazkenean eskaintzen dituen opariak, eta herrietan urte luzez baliatu diren jakiak dira, batik bat autokontsumorako. Despopulazioarekin, baina, desagertzen joan da etxe guztietan erlauntzak izateko ohitura, edo tokiko fruta-arbolak zaintzeko eta baliatzeko lanak. Orain, sarritan, udazkeneko uztaren bilketa herrietara hurbiltzen diren bisitarien eta *harrapakari*en eskuetan dago.

Bilketa masiboari aurre egiteko neurriak jartzeaz gainera, hainbat herritan ere natura-ondarea berreskuratzeko lanean ari dira.

Apinaizko kontzejua da horren adibide. 2010. urtean egin zuten tokiko fruta-arbolen ondarea ikeritzeko saiakera bat Izkiko Parke Naturalean, eta horren ondoren gaztainondoak berreskuratzeko eta sustatzeko proiektua abiatu dute, Euskal Herriko Hazien Sarearen eta Arabako Diputazioaren eskutik. Gaztainaren ustiaketak Europan hartu duen garrantzia ikusirik, aukera ekonomiko osagarria izan daitekeela uste dute.

Hamabi hektareako gaztainadia

Joseba Iburgurengoitia Euskal Herriko Hazien Sareko kideak azaldu duenez, Apinaizko gaztainadia Izki parkeko handiena da eta, Zigoitikoarekin batera, Arabako nagusiena. Hamaika hektarea baino gehiago hartzen ditu eta 400dik gora zuhaitz motz zahar daude bertan, azken 50-60 urteetan inork ukitu ez dituenak. Beraz, toki egokia da gaztaina barietate desberdinak aztertzeko, eta interesgarrienak aukeratzeko.

Herriko jendea animatuta dago proiektuarekin. Sergio Martinez de Rituerto Batzar Administrati-boko lehendakariak parte-hartze

Mahaian da udazkeneko uzta

Apinaizen gaztainak erretzeko garaia baliatu dute herriko lauhundik gora gaztainondoan balioa nabarmendu eta gaztainaintza sustatzeko; Fresnedan, berriz, urteko txilar ezti uzta jaso eta prestatzen ari dira.



Gaztainen lehiaketa egin dute Apinaizen, eta herriko gaztainak nagusitu dira. PHOT.OK



Txilar eztiabaraskatik ateratzeko arrabola erabiltzen dute. PHOT.OK

handia azpimarratu du. "Asmoa azaltzeko topaketak egin ziren uztailean, eta hogeita hamar lagunek parte hartu zuten". Gainera, azken urteetan gaztainondoan inguruan garbiketak eta egurraren banaketa egin dituzte. "Bi hektareako eremua garbitu dugu, eta toki hori baliatuko dugu gaztainadi bat nola kudeatu behar den aztertzeko, inausketa teknikak, txertaketak...".

Lehenengo jaia

Egitasmoaren barruan, Gaztaina Jaia egin dute Apinaizen, eta Extremaduratik zein Errioxatik etorritako gonbidatuek azaldu dute bi lurralde horietan nola ustiatzen duten gaztaina. Halaber, fruitua erretzeko frogak egin dituzte, barietate desberdinen ezaugarriak ezagutu dituzte, eta Izkiko gaztaina hoberenak aukeratzeko lehia-keata ere egin dute.

Apinaizko gaztainek irabazi dute, eta ez da harritzekoa. Martinez de Rituerto alkateak dioen bezala, gaztainarekin beti bizi izan dira Arabako Mendialdean: "Autokontsumorako erabili izan da gaztaina, erreta edo egosita, baina ez da inoiz izan oinarrizko errekur-

tso bat, beste aukera batzuk gennituelako".

Gaztainak bezala ezta ere biltzen dute Mendialdean, gainerako eskualde guztietan bezala. APIA Len datuen arabera, bostehun erlezain daude herrialdean.

Txilar ezta prestatzeko lana

Gaubeako Fresneda herrian, esate baterako, txilar ezta egiten dute Begoña Diaz de la Presaketa Samuel Etxebarriak. Herriko bizilagun gehienak bezala, De La Presaren familiak erlauntzak zituen garai batean, eta ezta gozoa egiten zuen aitonak. Orain dela hamar bat urte berreskuratu zuen bikoteak familiaren tradizioa, eta hogeitabat erlauntz kokatu dituzte Arkamuko mendietan.

Jaso dituzte abaraskak, eta datozen asteetan ezta poteetan sartuko dute. "Artisau-lana da", esan du Etxebarriak. Abarasken operkulua eskuz kentzen dute, banan-banan, gero zentrifugatzailean sartzen dira, eta ondoren iragazi egiten dute ezta, argizaria kentzeko. Berrehun kilo inguru aterako dituzte aurten. "Eskaera handia dugu eta ez gara iristen, baina hau ez da ogibidea".

GAZTAINA AUKERA EKONOMIKO OSAGARRIA IZAN DAITEKE IZKIKO HERRIETAN

ARTISAU-LANA DA ERLEZAINENA; ONDO IRAGAZI BEHAR DA EZTIA ARGIZARIA KENTZEKO

HAMABI HEKTAREA INGURU DU APINAIZKO GAZTAINONDOAK; 400 BAINO GEHIAGO ZUHAITZ MOTZAK DIRA

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com

RPS 84/14

FARMACIA
PUENTE
1.826

San Frantzisko Kalea, 2 - Gasteiz
www.farmaciapuente.com

ESANAK



IRATI ANDA SOLAY
MARGOLARIA

"Uraren eta itsasoaren inguruan egiten ditudan koadroek lasaitasuna transmititzen didate"



ABELARDO FERNANDEZ
ALAVESEKO ENTRENATZAILEA

"20 puntu ditugu, pozik gaude bigarren postuan, baina gure helburua zein den ere oso argi daukagu"



MIREN LARRION
EH BILDUKO BOZERAMAILEA GASTEIZEN

"2016ko aurrekontuan hitzartutakoa bete izan balitz, Gasteiz oso bestelako hiria litzateke orain"

ZENBAKITAN

2.149

Zuhaitzak

Diputazioak 2.149 arte eta olibondo landatuko ditu Samaniegon, orain arte kontrolik gabeko hondakindegia zen eremu batean. Astelehenean hasitako lanekin 18.865 metro koadroko eremua bere onera bueltatu nahi dute. Natura 2000 sarearen barruan dagoen interes bereziko gunea da, Arabako Hegoaldeko Mendilerroaren oinean kokatuta, baina legez kanpoko hondakindegia bihurtuta zegoen.

30

Minutuak

Baskoniak Final Four ekitaldiari begira bere bazkideentzako erreserban utzita zituen sarrerak salmentan jarri eta ordu erdira bukatu dira. Astearte eguerdian jarri dituzte salgai 105 euroan hasi eta 535 eurorainoko balioa zuten abonamenduak. Baskoniako bazkide bakoitzari gehienez sei abonamendu erosteko aukera eman diote. 2019ko maiatzaren 7tik 19ra bitartean izango da Final Fourra, Buesa Arenan.

5

Euroak

Tuvisak 2019. urterako tarifak aurkeztu ditu. Berritasunik handiena turismoari begira prestatu dituzten bono berriak dira: egun baterako bonoak 5 euro balioko du, bi egunekoak 7,5 euro, eta hiru egunekoak 10 euro. Orain indarrean den tarifarik merkeena 4 zentimo garestiagoa izango da: 806 euro baino gutxiagoko ordainsaria duten pertsona nagusiek eta ezgaituek 15 zentimo ordaindu beharko dituzte.

Euskaraldiaren lehen Probaldia egin dute, "arrakasta" osoz

Euskaraldiaren Gasteizko Probaldia egin dute larunbat arratsaldean Salburuko gizarte etxean. Berrehun bat lagunek parte hartu dute orain arte proposamen baino ez zirenak errealitatean gorpuzteko ariketa praktikoan. Eta ariketa hori ederki gainditu dute, antolatzaileen arabera: "arrakastatzat" jo du probaldia Gasteizko Euskaraldiko koordinatzaile Oier Azkarragak.

Arratsaldeko bostetan hasi dira beroketa lanak, umeei bideratutako *Egur taupadak* izeneko antzerkiarekin. Ondoren etorri da mugimendua: ginkana egin dute, eta kalera atera dira, auzokideekin mintzatzeko. Gizarte etxean geratzea nahiago izan dutenek, aldez, zumba klasera joateko aukera izan



Salburuko gizarte etxean egin dute probaldia, baina kalera ere atera dira. EUSKARALDIA

dute. Mintzodromoa egin dute ondoren, eta bertan norberak hizkuntzarekiko bere esperientzia kontatzeko modua izan du. Modu horretan, esperientziak partekatuz, euskarak aurrera egin dezan tresnak ezagutarazi dituzte.

Arratsaldeari behar moduko amaiera emateko, Jon Basaguren musikariaren kontzertua izan dute Salburuan bildutakoek, eta datoren hitzorduaren zain geratu dira: azaroaren 23an hasiko baita benetako ariketa.

Bederatzi sindikatuk bat egin dute Memoria Gara ekimenarekin

ELA, LAB, ESK, EILAS, UGT, CCOO, USO, CNT eta CGT sindikatuek Zaramagako San Frantzisko elizak Martxoaren 3ko sarraskiaren biktimen memoriari lotutako proiektu bat har dezan eskatu dute. Memoria eta giza eskubideei lotutako politikak garatzeko balio behar duen gunea izan behar dela nabarmendu dute. Bestalde, Memoria Gara plataformak azaldu du 2.500 bat sinadura lortu dituela jada *change.org* plataformaren bitartez, bere eskakizunaren alde. Apezpikutzaren baimena beharko da horretarako, eta plataformako kideek gaiari buruzko bilera bat eskatu dute, baina eliza katolikoa- ren ordezkariak oraindik ez diote erantzun eskaerari.

impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

"Beste ekimen batzuetarako aliantzak egin ditu Errigorak"

ILUNE BASTERRA ERRIGORAKO KIDEA

ESTI LANAO GASTEIZ

Duela bost urte, Erriberako (Nafarroa) bi ekoizleren produktuekin kutxa bat prestatu eta Argia ikastolara bideratu zuten dirua; 1.600 saski saldu eta 31.000 euro jaso zituzten orduan. Horiei beste batzuk batu dira, eta proiektua hazten joan da urteekin.

Udazkeneko kanpaina aurkeztu du, ALEA FM saioan, Errigorako Gasteizko kide Ilune Basterrak.

Euskara eta nekazaritza. Bi ardatz horiek dira nagusi Errigoran?

Ardatz horien inguruan sortu zen proiektua. Erriberan euskarak bizi duen egoerak bultzatuta, alde batetik; denok dakigu Nafarroan oraindik ez dela euskara ofiziala lurralde osoan, eta hango euskararen egoerari bultzadaxo bat emateko zer egin zitekeen pentsatu eta ideia horren inguruan elkartu ziren. Beste helburua bertako ekonomia izan zen, hango ekoizleen egoera ez delako batere samurra. Eta bi helburu hauek uztartzeko, bertako ekoizleekin elkarlanean proiekturen bat egitea pentsatu zuten. Hirugarren ardatza auzolana izan da, proiektu hori nola egin erabaki zenean. Eragile desberdinak elkartuta, norbanakoek aletxoak jarrita, pixkanaka-pixkanaka Euskal Herri osoan zehar saretu den ehun hau sortu dugu.



Ehunka boluntariok parte hartzen dute saskia prestatzen. ARGIA

Zenbat ekoizlek parte hartu dute aurten?

Hasieran gutxi ziren arren, batzen joan zaizkigu 15 bat izan arte. Ekoizleak ere hasieran, gauza guztietan bezala, interes batzuk mugituta hurbilduko ziren, baina gutxinaka beste helburu batzuei ere batu zaizkie. Euren eskaintzan euskarak duen presentziagatik, adibidez, etiketak euskaraz eskainita. Lehenengo kanpaina honetan diruaren etekinaren zati bat euskararen eragileei bideratzen zaie zuzenean; kontzientzia pixkana zabalduz doa, euskararen aldeko apustua eginez kontsumitu duten horiek ere, eta bertako produktuak kontsumitzeko apustua eginez. Baten batek behin esan zuen modura, poesia egiten hasi

ginen, eta bagoaz pixkanaka eragiten bi lerro horietan; bai ekonomikoki, eta baita beste modu batzuetara ere, kontzientzia lanetan eta kontsumoaren ildotik.

Eta zenbat boluntario lanean?

Euskal Herri osoan zabaldu dugu sarea, herriz herri, auzoz auzo, ikastolaz ikastola... boluntario asko lan desberdinetan; informazioa zabalteko, banaketan laguntzeko edota kutxa bera osatzeko... bakoitzak bere aletxoak jartzeko aukera du. Halere, ez da soilik zenbaki kontua. Eragile ugari dira, eta horrek beste aliantza batzuk eta sinergiak ekarri ditu; Gasteizen, esate baterako, bionekazaritzako lagunekin... Gure ideia da sare hau hazten jarraitzea, eta

utopikoa izango bada ere, beste kontsumo eredu batzuk aztertzea... Ikusten ari gara honek ere baduela ibilbide bat eta denok erabakiko dugu nora joan. Oso gaztea da Errigora ekimena eta itxura ona hartzen diogu.

Zer nobedade dituzte saskiek aurten?

Hasieran saski bakarra genuen aukeran, eta badira bi urte bi saski eskaintzen ditugunetik: beltza eta zuria. Beltzean hasieratik izan diren produktuak ditugu: piperrak, zainzuriak, orburuak... Eta zuriarekin Nafarroan bertan ekoizten diren beste produktu batzuk eskaintzen dira: arroza, ozipina, pasta...

Arabarrek nola egin dezakete eskaera?

Laudion, Amurrión, Lautadan eta Gasteizen ditugu eskaera



Ilune Basterra. ALEA

puntuak Araban, eta beste edonongo herritarra izanda eskaera egin daiteke eta Gasteizen jaso; online egin daiteke eskaera, modu errazean, *errigora.eus* webgunean, eta bertan aukeratu daiteke

banaketa gunea. Esku-paperak ere topatuko dituzte euskaltegietan, Elkar liburudendan edo ohiko lekuetan: gizarte etxe, elkarte eta hainbat tabernatan.

Nora bideratuko dira irabaziak?

Nafarroako Erriberan lan egiten duten hainbat ekimen dituzte abian sustatzaileek –AEK, Ikastolen Elkarte eta Sortzen Ikasbatuaz–, eta euskarari lotutako hainbat proiektutara bideratu dira azken urteetako etekinak. Besteak beste, ikastoletan aurrera eraman dituzten proiektu pedagogikoetarako edo azpiegiturak berritzeko proiektu zehatzagoetarako erabili da dirua, edo D erudian matrikulatzeko kanpaina egiteko; horri esker hainbat gela berri daude Erriberan euskarazko ereduarekin. ■■■



ERAKUSKETAK

Kolore nomadak

Menchu Lamas

> 2019.01.20

Queda mucho pasado por delante. Oroí

Artium bilduma

> 2018.08.25

Liburuez eta poemez

Poesia experimentalari buruzko liburu erakusketa

> 2018.10.13

JARDUERAK

ZINEMA-IKASTAROA

Errealitate Iragankorrak.

Juan Arrosagaray

11 | 6,7,13,14 19:30 > 21:30

MUSIKA HEDATUA

Gazteentzako lantegiak

Antton Goikoetxea • Idoia Elorza

11 | 10, 24 17:00 – 19:00

ARTISTAK GUREAN

Mirari Echávarri

11.20 19:00

FAMILIENTZAKO LANTEGIAK

FamiliArtium

Gizon-Emakume heroiak

Irakaslea: Azucena Monge

11.17 17:00 > 19:00

ERAKUSKETEN

BISITA GIDATUAK

Euskaraz

11 | 7,14,21,28 18:30

Argibide gehiago:

www.artium.org

Ogi tostekin egindako liburua

Artepanek 35 urte betetzen ditu eta hori dela eta, 'Ñam' izeneko liburua aurkeztu berri du. Ogi tostekin egiteko 35 errezeta bildu dira; beste horrenbeste sukaldari arabarrek sortutakoak guztiak.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Sukaldaritza gustuko dutenek argitalpen berria dute eskura; hain justu, ogi tosta oinarri duten errezeten liburua aurkeztu zuen joan den ostegunean Artepanek, Mendizorrotzako Ostalaritza Eskolan. 'Ñam' du horrek izena.

Denera, 35 proposamen jaso dira bertan; zehazki, Artepanek aurten betetzen dituen urte kopuru berdina. Tosta bakoitzaren argazkiarekin batera, hori prestatu ahal izateko behar diren osagaiak, prozesuaren pausuak eta errezetaren zailtasun maila biltzen dira, eta baita erabilitako ogi motari

buruzko oinarritzko azalpena ere. Izan ere, Artepan eta Mamiako ogi mota ezberdinekin daude eginda; tartean, mahaspasa eta intxaurrea, espelta, sesamo edo gariatz egindakoak.

Tosta horiek oinarri hartuta, 35 sukaldari arabarrei errezeta bana sortzea eskatu zaie, eta horren emaitza da 'Ñam'. Beste

**EUSKARAZ ERE
KALERATU DUTE
LIBURUA, ETA ALEA-K
HARPIDEDUNEN
ARTEAN BANATUKO DU**

askoren artean, Zaldiaran, El Clarete, Sukalki, La Riojana, Andere, Perretxiko edo Villa Lucia jatetxeetako arduradunek parte hartu dute argitalpenean.

Gaziak zein gozoak

Tosta batzuk gaziak dira; beste batzuk, berriz, gozoak. Hori horrela, denetariko produktua erabili dituzte sukaldariek: izokina, barazkiak, frutak, ondoak edota bakailaoa, besteak beste.

Artepanek 12.500 aleko tirada atera du; horietatik, 4.500 euskaraz dira. Hainbat modutan banatuko dira; ALEAK, esaterako, harpidedunei oparituko dizkie laster. ■■■



Guztira, sukaldari arabarrek egindako 35 proposamen jasotzen ditu liburua. ARTEPAN

FAMILIA IRTEERA

ARTIUM MUSEOA

'ALTXORRA' bisita & lantegia

'Hau zergatik da artea?'

2018/11/15 - 17:45-20:00

Adina: 5-12

**Dohainik*

EMAN IZENA:

zgil@geuelkartea.eus / 640 574 996

'Cold War'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Zinean Gerra Hotza agertu den bakoitzean, espioien filmak edo film politikoak egitea topikoa izan da, gaiak atzean dakarren aberastasuna gehiegi mugatuz. Paweł Pawlikowski zuzendari poloniarren azken filmaren kasuan, izenburuak berak argitzen digu zein izango den ikusiko dugun garaia: Gerra Hotza. Hala ere, Pawlikowskik topikoak bazterrean uzten ditu eta hasieratik kontatu nahi duen horretan arreta jartzen du, amodiozko istorio gazi-goza.

Zula (Joanna Kulig) eta Wiktor (Tomasz Kot) gerraosteko Polonian ezagutuko dira folklore-musikalaren eta dantzaren atze-oihala dutelarik, eta, berehala, ezin utsizko erakarpena sortuko da bien artean, nahiz eta hasiera batean oso desberdinak diren. Zularen jatorria apala da, Wiktor, aldiz, findua eta ongi hezitakoa. Bien bizitzak kontrajarriak dirudite, baina film erromantiko onenetan ikusten den bezala, patuak aurretik hautatutako etorkizuna idatziko die. Zula uhar sutsu batek zuzentzen du (*femme fatale* klasikoan antzera), eta Wiktor berarekin batera amodiozko errusiar mendi batean sartuko da, ikuslea ere bertan murgilduz. Ez dezagun ahaztu, *Cold War* zuri-beltzeko film zoragarri bat da, eta emoziozko gorabeheretatik eramango du



'COLD WAR'

ikuslea. Zirrarako prest dagoen hura, bederen.

50eko hamarkadan Polonian abiatzen da istorioa, Zula eta Wiktor dantza eta kantu folklore-talde bateko parte izanik, lehena abeslari eta dantzari bezala eta bigarrena musikari eta taldearen zuzendari. Elkar maiteko dute, eta taldeak lurralde desberdinetatik birak egingo ditu, estalinismoaren eraginaren hatzamarrak taldearen sormen gaitasuna

**EMOZIOZKO
GORABEHERETATIK
ERAMANGO DU
ZIRRARAKO PREST
DAGOEN IKUSLEA**

bat-batean moztuz. Harresi aurreko Berlinera iristen direnean hasiko dira Zula eta Wiktor altzairuzko oihala zeharkatzeko ametsarekin, baina orduan, Casablancako eszenaren antzera, maitaleek ez dute elkar gauzatuko hori, eta komunismotik kapitalismorako bidea Wiktorrek bakarrik egingo du. Zulak talde folklorikoarekin jarraituko du, zorigaiztoko bidea hautatuz.

Cold War ez litzateke aparteko maisulana Pawlikowskik darabilen estetiarik gabe. Zuri-beltzaren baliatze liluragarria, enkoadraketen eta planoen eraikuntza originala, musikaren erabilera naturala (Joanna Kulig aktoreak abesten duen *Dwa serduska* abestiaren jazz bertsioa txundigarria da) eta lengoia zinematografiko berriatzaile baten bilaketa dira laburbilduz pelikula ezohikoa bilakatzen duten osagaiak. Dena den, bere aurreko filma, *Ida*, ikusteko aukera izan genuenek zuzendari bikain baten aurrean geundela sumatzen genuen. Hurrengo proiektua polemikaz inguratutako Edouard Limonov idazle eta politikari errusiarri buruzkoa da. Ea aurrekoen mailan jarraitzen duen. ■

zinea

Aldatzeko beharra

SEXUALITATEA



EMAIZE

SEXOLOGIA ZENTROA

Ipurdi handiagoa izan nahiko zenuke, zabalagoa. Arraroa egiten zait esaten duzun hau, nire inguruko emakume gehienek kontrakoa nahi dutelako. Zure ipurdia txikia, muskulatua eta borobila da. Emakume askok holakoa nahiko lukete, eta pertsona askorengan desioa pizten duela ziur naiz. Baina nire ustez ipurdi perfektua dena, zure ustez itsusia da.

Zure titi txikiak gustuko dituzu. Txikiak gustuko? Ez da ohikoa. Titi handiagoak nahiago lituzketen emakume asko ezagutzen ditut eta horretarako ehunka ebakuntza estetiko egiten dira. Emakume ideala aipatzean titi handiak aukeratzen dituzte hainbatek. Askorentzat gutxiegi dena, zuretzat ideala.

Ispilu aurrean jartzean itsusi ikusten duzu zure burua. Hanka politik, bizkar indartsua eta aurpegi izugarri ederra. Tripa txikiagoa bazenu, benetan liluragarria izango zinela uste duzu. Nik liluragarri ikusten zaitut, eta tripa ez zait deigarria iruditut zuek aipatu arte. Liluragarri, zu osorik.

Zuek guapak sentitzen zarete. Askoren begietara lodi, ispilu aurrean ederrak. Batzuek modu "sexyan" ezin zaretela jantzi diote, arropa estuegiak ez direlako zuentzat egokiak. Arropa estuekin, soineko luzez eta txandalarekin ikusi zaituztet. Beti erakargarri.



PIXABAY

Eta zu polita zara, oso, irribarre egiten duzun bakoitzean mundua argitzen duzu. Baina argi horren aurrean itsu zaude eta zure aurpegiko tristurak gorputz eder hori ezkututzen du, nahiz eta estu jantzi.

Afrikako emakume talde batean gorputzari buruzko ariketa baten osteko hausnarketa da hau. Giza talde guztiek bezala edertasun eredu baten presioa dute, eta beraien jaioterrikoa eta bertokoa nahastu arren, niri, europar eta euskaldun bezala, zenbait gauzek harritu egin naute.

Antzekotasunak baditugu ordea, bai jatorri anitzeko

EREDU GUZTIEN GAINETIK, EDERTASUNA SUBJEKTIBOA ETA ALDAKORRA DA

emakumeok, eta baita emakume eta gizonen ere. Gure gorputza begiraten dugunean, gutxien gustuko dugunari lehentasuna ematen diogunean, zoragarria den beste guztia baliogabetu egiten dugu. Gizarteko edertasun eredu eta gure ingurukoek esaten digutena gutaz egiten dugun balorazioa markatuko dute, besteak beste. Baina badago askoz eragin handiago izan dezakeen faktorea: guk geure buruari esaten dioguna.

Ispilu aurrean jartzean nora begiraten dut? Zertan jartzen dut atentzioa? Zer mezu ematen diot neure buruari?

Erakargarri sentitzen diren pertsona gehienek ez dute edertasun eredu zorrotzik betetzen. Bere burua modu positiboan baloratzen dute, bere nortasun eta gorputzarekin gustura sentituz, eta gustura sentitze hori islatzen dute besteon aurrean erakargarri suertatuz.

Eredu guztien gainetik, edertasuna subjektiboa eta aldakorra da. Arropa berarekin gaur guapa eta bihar itsusi ikusi naiteke. Bi pertsonen aurrean egonda, batentzat nabarmentzen ez dudan norbait izango naiz eta bestearentzat zoragarria.

Besteon begirada behar dugu, baina gure begirada ezinbestekoa zaigu elkarrekin bizi garelako nahitaez. Ederrak gara, sines dezagun! ■■■

Toba herria

GURE BAZTERRAK



Andoin

Kuadrilla: Lautada.

Udalerrria: Asparrena.

Biztanleak: 24 (2017ko EUSTATen datuen arabera).

Bitxikeria: Andoinen, Ilarduian eta Eginon ihauteriak berreskuratu zituzten orain dela urte batzuk; lastozko gizona erretzen dute.

ARGAZKIA: ARABA.EUS

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Legaireko artzainen transhuman-tziarekin lotutako istorioekin batera, ura da Andoingo oinarrizko ezaugarria. Izan ere, herrira jaisten diren Toberia ur-jauziak Arabako leku eder eta ezkutukoe-netariko bat izateaz gainera, herriko historiaren parte garrantzi-tua dira.

Aspalditik baliatu dute herritarrek erreka indarra. 1787. urtean hain zuzen herriko lehen errota eraikitzea agindu zuen kontzejuak, eta urte luzez baba, oloa, garia, garagarra eta algarrobarekin eginiko *mesto* izeneko nahasketak ehotzen zuten herritarrek bertan, ganaduari emateko. Halaber, zurgindegia eta errementari bezala funtzionatu zuen Andoingo errota zaharrak urte luzez.

Halere, despopulazioak eta elektrizitatearen helduerak errota abandonatzea ekarri zuten, 1990. urtera arte. Urte

horretan bikote gazte batek erosi eta birgaitu zuen.

Ohikoa izan da toberia hitza gaztelaniazko *tubería* izenarekin lotzea. Dena den, Gerardo Lopez de Gereñu etnologoaren ikerlanak Toberia (eta ez *tubería*) jasoa du (Toberia ur-jauziak, hain justu), Entziako mendigunean.



Toponimo horrek tobarriarekin du zerikusia, ur-jauzien ondoko substratuan tobarria azaleratzen baita, kareharrizko arroka oso porotsua; eta iturburu horietako urak joan-etorrian ibili eta kareharrizko materialak disolbatu dituztenean sortzen da toba.

Toberia ingurukoekin batera, edertasun handiko txoko anitz ditu Andoinek. Santa Marinako elizatik ikusi dezakegu Entziako mendilerroa. Pagoak eta haritzak nagusitzen dira hegoaldean, eta Legaireko larreek okupatzen dute mendizerraren goialdea. Iparraldera begiratuz gero, Altzaniako haitzak aurkituko ditugu, Olano buru dutenak. Karabidera joanez gero, Ziordia dugu aurrean eta mendebaldean Ibaguren.

Herrian nabarmentzekoa da San Joan parrokia eliza. XVIII. mendeko zutabe toskanarrak, koru aipagarria, XVI. mendeko erretaula nagusi platereskoa eta XVIII. mendeko alboak ditu.

Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

Irabazleak:

ALEA aldizkariko harpidetza:

- Javier Izquierdo Zarate
- Belen Cid Duran
- Eukene Rueda
- Josema Galaz Martinez
- Iber Martinez de Contrasta

'Ahora todo es noche' antzezlana (sarrera bikoitza):

- Teresa Arriolabengoa



Parralaren bazkaria

Bi lagunentzako bazkari begetarianoa, astean zehar.

Eman izena azaroaren 7a baino lehen, eta azaroaren 9ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Antzerkirako sarrera bikoitza Principalen, 'Espía a una mujer que se mata' antzezlana ikusteko.

Eman izena azaroaren 7a baino lehen, eta azaroaren 9ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Azaroaren 2tik 8ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Dantzetan Jarrai

DJ Perurekin batera.
Larunbata 3, 20:00etan, Txokogorriin.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Tabernaria: instrukzioak botatzeko ondo bat kaña'

Mikel Martinez aktorearen eskutik.
Osteguna 8, 19:30ean, Falerina tabernan.

IKUS-ENTZUN

GASTEIZ 'Min lilla syster' pelikula

Sanna Lenkenek zuzendutako pelikula. Filmazpit zikloaren barruan, jatorrizko bertsoia eskainiko da, euskarazko azpitoluekin.
Astearte 6, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ 'Errementari' pelikularen sortze prozesua

Paul Urkijo zuzendariarekin. Sormen lanari buruzko solasaldia.
Asteazkena 7, 18:30ean, Salburuko gizarte etxean.

HAURRAK

GASTEIZ Beldurrezko maskarak

Etxean topa daitezkeen materialekin beldurrezko maskarak egingo dituzte. 4-8 urte bitartean.
Ostirala 2, 18:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.



ALEA

GASTEIZ 'Ezberdin bezain eder'

Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadorekin. 4-8 urte bitartean.
Astearte 6, 18:00etan, Arriagako gizarte etxean.

LAUDIO 'Musika izarrak'

Ikuskizuna, askaria eta tailerra izango dira.
Larunbata 3, 17:30ean, La Milagrosa ikastetxean.

TERTANGA Sukaldaritza familian

Domekero zikloaren barruan.
Igandea 4, 16:30ean, eskola zaharrear.

KANPEZU 'Ardiak eta otsoak'

Haurrentzako pelikula.
Igandea 4, 18:00etan, kultur etxean.

GASTEIZ 'Animalien biltzarra' ipuina

Maidar Alzelai ipuin kontalariarekin. 4-8 urte bitartean.
Astelehena 5, 18:00etan, Hegoalde gizarte etxean.

GASTEIZ 'Euskal artistak: Oteiza'

Oteizaren lana ezagutu eta bere eskulturen antzeko lan bat egingo

dute haurrek. 5 urtetik gora, heldu batek lagunduta.

Astearte 6, 18:00etan, Iparralde gizarte etxean.

GASTEIZ 'Musika eta ipuinak'

Erika Liqueeterekin. 3-8 urte bitartean.
Asteazkena 7, 18:00etan, Abetxukuko gizarte etxean.

GASTEIZ 'Txoriburu'

Josune Velez de Mendizabalekin. 4-8 urte bitartean.
Asteazkena 7, 18:00etan, Zabalganeko gizarte etxean.

BESTELAKOAK

LAUDIO Irakurketa Kluba

Txani Rodriguez idazlearen eskutik, irakurketa solasaldia izango da, euskaraz.
Astelehena 5, 19:30ean, udal liburutegian.



ZAKATAUMBA

BUJANDA 'Araba Mortis. La venerada momia de San Fausto'

Zakatumba heriotzaren kulturaren jaialdia. Aurretik izena eman behar da.
Larunbata 3, 11:00etan eta 13:00etan.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Ismael Isaac

Ostirala 2, 21:00etan, Jimmy Jazzen.

GASTEIZ Bertrand Chavarria-Aldrete

Carmelo Bernaola musika jaialdiaren barruan.
Larunbata 3, 12:30ean, Arte Ederren Museoa.

GASTEIZ Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Christian Lindbergek zuzenduta.
Astelehena 5, 20:00etan, Principal antzokian.

GASTEIZ Dead Sequoia

Asteartea 6, 20:30ean, Parral taberna.

GASTEIZ Barcelona Chamber Players

Astearte Musikalak zikloaren barruan. eskainiko dute kontzertua. Melanie Mestrek zuzenduko du.
Asteartea 6, 20:00etan, Dendarabako aretoa.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Moby Dick'

Josep Maria Pou aktorearekin.
Ostirala 2, 20:30ean, Principal antzokian.

DULANTZI 'Dinero'

Teatro del Garabato taldearekin.
Larunbata 3, 19:30ean, antzokian.

AMURRIO '¿Qué nos pasa a las mujeres?'

Atikus taldearekin.
Larunbata 3, 20:00etan, Amurrio antzokian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Mudar la piel'

Zinema Gaur zikloaren barruan. Cristobal Fernandez eta Anna Schulzek zuzenduta. Pelikularen ostean, solasaldia izango da zuzendariekin.
Astelehena 5, 19:30ean, Montehermoso kulturunean.



2018

Azaroa

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

06 ar. | 19:00 Ikus-entzuzekoa

**Min Lilla syster**

Hizkuntza: ingelesa

Filmazpit, zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpifituluekin

07 az. | 17:00 Ikastaroa



Izena emateko: oihaneder.eus

Crowdfunding tailer irekia

Itsulapikoa.eus-eko kideekin

Batera, kultur proiektuak elkarrekin

Gauokoakekin elkarlanean

08 og. | 19:30 Antzezlan



Falerina Tabernan

Tabernaria

Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña

Mikel Martinez - Tartean Teatroa

14 az. | 19:00 Hitzaldia



Izena emateko: ueu.eus

Maoriera

Imanol Miner

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa

UEUekin elkarlanean

15 og. | 21:30 Antzezlan

**Zerura eroria**

Anodino teatroa

Gauokoakekin elkarlanean

21 az. | 19:00 Ikus-entzuzekoa

**Nola biziko dugu Euskaraldia?**

Lutxo Egia, Ainhoa Arbaiza & Izarne Zelaia

Begi Belarri, ikus-entzuzekoan zikloa

GEU Elkartarekin elkarlanean

25 ig. | 19:00 Ikuskizuna

**Denbora**

Altraste Danza

Saski Naski, sorkuntza artistikoen otzara

29 og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Tabernan

Sara Zozaya

Eskilarapeko Soinuak, formatu txikiak kontzertuen zikloa

10/16 > 12/16 Deialdia

**Kultur proiektuak elkarrekin**

- Crowdfunding-ean laguntza eta 1000 €ko ekarpena
- 16-30 urte bitarteko gazte gasteiztarrei zuzenduta
- Proposamenak bidaltzeko: oihaneder@oihaneder.eus
- Info +: itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

OIHANEDER.EUS

FRAY ZACARIAS MARTINEZ, Z - VITORIA-GASTEIZ



LAGUNTZAILAK

Diario

ALEA

berria

ANTOLATZAILA

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIAAyuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala